

Mailukiak

Ramon ETXEBARRIA


Urteak eta urteak lotan egon ondoren, gu bizi garan Ama Lurrak emon eban bere lehenengo hazia. Arrainak beti uretan hara ta hona aspertu ziranean, urak alde batera bota eta berdatxoak euren burua agertu eben lur gainean. Negu iluneko lo sakonetik urtenda legez, ezereztik ia-ia, sortzen da udabarria. Mendiz ingurututako haran eta ibarretan zehar ikusi ebazan munduak bere auzo bariak. Mailukiak ziran.

Kutsadurarik barik, danak bardinak, irribarrea ta hizkuntza garbia ahoetan, abesti alai ta eztiutsuz hasi eben udabarria. Zekenkeria bako mundu bat. Hain ondo ta zoriontsu bizi ziralako, lege-gizonik ere ez egoan. Ez zan behar horrelakorik. Hitza zan legea ta hitza bete egiten zan. Bete eta beteazo. Ez egoan telefonorik. Zertarako? Nahikoa zan ingurumariko mendietan suaz, ke apur bat egitea ezer garrantzitsurik baegoan, zuhaizpean alkartzeko.

Egunak joan, egunak etorri, mailukiak sekulako saioian egozanean, txiltxilean, beste era bateko lorak sortu ziran.

Mailukiak, mailuki izaten jarraitzen eben artean, egunak joan, egunak etorri, ezer ez ziran landara batzuk hazi egin ziran.

JESSE-84



Mailukiak euren nortasuna, euren izena, mundu ez-bardin bat zirala azken baten ikusirik, bide bardin antzekoa hartzea erabagi eben.

Sortu ziran landara barri eta lora barriak, batzuk handiagoak ziran, beste batzuk txikiagoak. Izenez, kolorez, neurriz, izakeraz eta beste hainbat gauzaz desbardinak ziran.

Udabaria zelan aurrera joan halan agertzen ziran lora barriak mailuki inguruetan. Sagar-lorak, madari-lorak, keriza-lorak, e. a. Era askotako sagar-lorak, era askotako madari-lorak, era askotako keriza-lorak eta lora mota bakoi-tzetik frutu mota bat.

Bakoitza berean bizi zan. Inorenik ez eben nahi ezta eurenik ikutzerik ere. Batzuen lora sasoi aurrera joian eta ondorio legez frutua agertu zan.

Sagarrak, mailukiak baino handiagoak zirala ta, indar gehiago ebela ta, gehiago ere bazirala ta, arbola gainean bizi zirala ta, mailukiak euren menpean jartzea erabagi eta ahalegintzen dira.

Jakina, menperatze honek ez deutse gauza onik eka-rriko goikoei ezta bekoei ere. Zergaitik eta zertatik menperatze hori? Betiko burruka bat sortu eben sagarrok.

Mailukien artean ez egoan burrukatzeko gogorik. Nork igon-sagar, madari, keriza ta okaran gainetara? Zelan burrukatuko ziran ba, besteak gehiago ziran eta goitik behera eukien eta? Horrez gainera ez ziran zaleak ere.

Sagar Garratz zan agintaria. Baegoan txarragorik. Eskubide guztiak sagar Gaza-minarengan egozan. «Gaztelu-

koa» deitzen eutsan jendeak bigarren abizenez. Honen aginpidetzapean irazi ziran mailukien eskubiderik gehienak edo danak. Hemendik aintzina mailuki-legeak galdu, edo kendu hobeto esan, eta sagar-legeak nagusitu ziran. Betiko hondatuta itzi ebezan mailukiak. Bai mailuki eta legeak, baziran zintzoak ba inor izatekotan!

Nahiz eta Sagar-garratz ta Gaza-min izan agintari nagusiak, herrialde bakoitzean euren ordezkariak egozan. Okendo-sagarra, Gorritxea, Bikotia, urtebete-sagarra, e. a. ziran lurraldeetan zehar banandutakoak.

Hau ez zan dana. Orain, Sagar-legeak beteazoteko edo bete ezik zigortzeko madariak egozan bananduta lurralde guztietan. Indar handikoak ziran. Ez eben inoren bildurrik. Asko ere baziran. Ezagunak ziran, Makatza, Basomakatza, Santiago ta Sanjuan madariak, Kofradi-madariak, zidiri-madariak, e. a.

Zelan joango ziran mailuki gizajoak guzti honeen aurka! Nahikoa egin eben bizirik irauteaz ezbehar danon artean! Eskerrak sustriak ondo botata eukezala eta lur onean!

Egualdi on askoren ostean ekaitza datorrela ta makurtu egin behar. Oraingoan ez dira mailukiak bakarrik izango makurtu behar dabenak, sagarrak ere gorriak pasatu beharko dabez.

Burruka hau dala ta Sagar Gaza-gozo, Sagar-garratzen semea, sagar gagnetik bota egiten dabe. Erbesteratu egiten da.

Sagar Gaza-min hilda egoan baina bere lekuan antzeko sagarrak jarraitzen eban. Ez eukan beste zereginik,

mailuki gizajoei sagardao garratza edanazotea baino. Honnek hil nahi ez baeben, edan besterik ezin egin. Hilda ere ez egoan irabazte handirik eta zelan edo halan aurrera egin behar zan. Lurpeko onurea kentzen ez eutsien bitartea baegoan itxaropena. Zorionez, han egozan sagar eta madari guztiak ere ez eukiezan sustraiak onura guztia kentzeko besteko luzeak.

Egualdiak berotzen berotzen joiazan eta lurrak legortzen. Haize bolada batek, hautsa, hostoak eta sastamarrak nahastatzen dabazan erara, nahastu ziran, sagar, madari, keriza..., hobeto bizi gurean batzuk, agindu gurean beste batzuk eta hau galazoten beste batzuk.

Bero handien ostean hodeia datorren moduan urten eban nahaste harek ere. Kofradi madariak laster hasi ziran agindu nahian. Luzaro burukatu ondoren, apurka-apurka, madarietako bat, Kofran izenekoak urten eban irabazle. Kofradi madarietakoa berau. Madaria baino baso-makatzat zirudian gehiago, neurritz behintzat. Goi-behe laburra edo ezazia izan arren gogorra zan, batez ere bere menpekoentzat. Mailukientzat oso gogorra. Sagar-Garratz eta Sagar Gaza-minek baino gogorrago hartu ebazan. Danak jateko prest. Arrezkero ez dago mailuki-zeruan hodei iluna ta oinaztua besterik.

Kofran madaria agintzen hasi zanean, lurralde osoaren erdi erdian ipini zan agintzen. Astokaran, Txarriokan, mentau bako okaran eta berari lagundu eutsienetariko sagar eta hainbat Katumadariz inguratu zan. Mazuztak eta Okanbaltzak, Patatasagarrakaz batera aginpide barik gelditu ziran. Erbestekoak ziran eta.

Oraingo honetan iraztontzi makala ez eutsien ipini mailuki lodikoteoi Kofran eta bere kofraditarrok! Mailuki izenik ere ez eban entzun nahi ezta euren gaineko kolore gorri, azpiko zuri eta hosto orlegia. Kolore honeek gaixotu egiten eban. Eta mailukiak kolorea aldatu? Ezta ezer-gaitik ere! Kolore horreek kendu ezkeru mailukia izatea posible da ala?

Sikate handia egon arren, mailukiak gogor egiten eban. Kofran madaria ez zan konturatzen berak botazo eutsen odol gorria euren sustraietara joan jakielat eta hau zala benetako onurea. Maltzurak eta ankerrak izan behar! Era batera lortu ezin ebana beste batera lortzen eban. Mailuki gizakia nahastatzeko beste era bateko landara eta frutak sartu ebazan mailuki lurretan. Hau ez zan nahiko eta madari gainetik ezin ziranez jatsi, mailuki artera bare marroi ta adardun karakol berdeak bota ebazan. Hau ez zala nahikoa ta honei laguntzeko mamarro ta harrak bota ebazan tartera. Honeen lana ez zan besterik mailukien barriak entzun, jakin eta ahal zanik eta arinen, gabaz gehienbaten, madariei eroan.

Bazirudian lur gainea menperatuta eukala baina lurpea ez. Zekenkeriaren zekenkeriaz, azpitikoak bota ebazan lurpera mailuki sustraiak jan eiezan. Neurriak goitik eta neurriak behetik. Gogorrak benetan!

Mailukiak, lehenago ez baegozan prest sagardao garra-tza edateko, orain gitxiago lege madarikatuak onartzeko. Mailukirik helduenak ez eban ikusten urtenbiderik baina gazteagoak, besterik ezean muna baztarrera joan eta harrika egiteko prest egozan. Solo-munara joan eta handik honantz kontuz etorri behar, ixilean eta eguraldi legorre-



tan egin behar, euria egiten ebanean muna guztia karako-
lez eta barez hondatzen zan eta. Lagunekaz alkartzeko hai-
zerre egunak izendatzen ebezan, mamarroak ostanduta ego-
ten ziranean. Halan da guztiz ere hainbat mailuki gazte
harrapatzen eben.

Orduan ere dirua diru zanez gero, soldata on baten
ordez, satorrak ere bereak eta bi egin ebazan. Inguru guz-
tia sator-joz bete eban, mailukien sustraiak kanporatuz.
Mailuki gazteen sustraiak batez ere. Horrez gainera, non-
dik nora joiazan honeen sustraiak jakin eta gero madariei
esan.

Ezbehar guzti honeen aurka zerbait egin behar eta hai-
zerre ta egun eguzkitsu bat aprobe txatuz batzartu ziran
mailuki gazte eta zahar banaka bat.

Hauxe zan argi gelditu zana. Indar ezbardinez dabil-
zala burukatzen eta madarien sare ezbardinak harrapatzen
ebezala ta horrek erantzun bat behar dauala.

Ez dakit nor zan, baina mailuki zahar bat zala uste
dot, kirikiolatzagaz lagun egin behar zala esan ebana. Hau,
mamarro, karakol, bare eta antzerako pistiekaz oso sabel-
koa zala ta.

Mamarroak sarritan joaten ziran karakolengana, mailu-
kiak non batzartzen ziran esaten. Berehala joaten jakezan
baina astiro ibiltzen ziranez, itzultzerakoan sarritan beda-
rra ebagita aurkitzen eben eta eguzkitan sikatzen ziran
muki dariola.

Onezkero, Lur gainean bake girorik ez egoala ta, le-
henengo txoriak hara ta hona ebilzan janari bila ta bakoi-

tza bere ingurua aurkitzen. Ez egoan luzaroan batera bestera ibili beharrik. Behingoan konturatu ziran mailuki gijazoen egoereaz. Danak etorri ez arren okila eta oskilasoa prest egozan. Ekintza honek gauzak aldatuko ez baebazan ere, bai jakinazo madari, sagar eta beste guztiei han zer-bait baegoala edo hango ha zuzengabekeria bat zala. Hau lortzeko ez egoan besterik, nohizean behin sagar-ondo edo madari-ondoren bat zulotu eta sagar-madariak zoli-zoli egozanean jatea baino.

Mailukiak euren aldetik nahiago izaten eben behera jatsi daitezala eta han ingurumarian dabilzan mamarro ta bare, karakol eta enparauei noizean behin estualdi bat emon eien.

Hasi ziran ba lan gogorrean. Txoriak eta eguzkia mailukien alde. Txoriak euren moko zorrotzez zulotzen ebezan. Eztenak zirudien. Eguzkiak berotzen ebanean, lurrean josita legez gelditzen ziran.

Udaroa aurreta joian eta Kofran madaria zoli-zoli egin-da egoan, noiz jausiko madari gainetik. Ez eukan kirtanak indarrrik gainean eutsiteko.

Gauzak era honetara egozan, Kofranadariak sagar bat hartu ebanean laguntzeko edo laguntzaile legez.

Sagar hau sagar-zurietariko bat zan. Bai, halan zala uste dot. Bigarren abizena ere «Zuri» ebala uste dot. Ekintzak ez ziran hain zuriak, zuria hartzen badogu kolore garbitzat behintzat.

Sagar hau handia zan. Jantzita ere zuriz. Bepuru astunak, aurpegi ilun, handi bati lotuta.

Bata madaria ta bestea sagarra izan arren, alkarren antzekok ziran. Neurritz bakarrik ziran ezbardinak. Bata baso-makatza, ezazia, goi-behe laburra ta bestea satai onekoa. Urrinetik ikusi ezkeru aita-semeak zirala esateko moduan.

Malukienganako erruki bakoa zan Sagar-Zuri hau ere eta nahiz eta erraza izan ez, sagar gainetik behera botatzea erabagiten dabe mailukiak.


Sagar hau ondo baino hobeto zainduta egoan. Zelan ez, berak agintzen eban eta! Sagar-ondoaren besadarririk sendoenean egoan eta ez hori bakarrik, bera egoan inguru guztia beste era bateko adar, aldaska, barda, abar eta zotzez josi eban inor ez eiten inguratu.

Mailukiak euren aldetik lanean hasi ziran. Lan gogorra benetan! Zelan eta zetara harrapatu Sagar-Zuri? Ekina gogorra dala ta baeragoien non ze barri lortuko. Jakinak jakinda, lau okil alkartu ziran. Lan handi ta neke-tsuz baina errukirik barik, ixilean eta gabaz, besadar sendoa zulotzea erabagi ta egin egiten dabe. Zuloa ere neurrikoa egin eben eurak harrapatu ez egizan azpian. Inork ez eian susmatu, kanpaldeko okilen zarateaz baliatzen ziran.

Dana egoan eginda. Lehenengo haize boladea etorri zanean aidean eroan eban zidiri-madari gaineraino Sagar-Zuri, besadar, abar eta guzti.

Hau jazotzea baino, eztena, zein ezpia sartzea nahiago izango eban Kofran madariak. Honegaz jausten zan bere zataia, oinarria.

Kofran madaria, zaharraren zaharraz, tximortuta egoan. Ez eukan pisu handirik eta kirtana ere sikatuta egoan



ezkero eta besadarrari eutsiteko lain indarrrik ez, jausi zan betiko bere karakol, bare ta mamarro artera. Eurak jan eben azken baten.

Arrezkero sano eskastu ziran antzerakoak. Dana dala Kofran madariak bere ordezkoa aurkituta eukan. Bera aginten hasi baino lehenago sagar gainetik bota eben Sagar Gaza-gozoren ondorengo bat aukeratu eban. Sagar Gaza. Ez gozoa ez garratza. Luzea, handia.

Zuzenean inori kalterik ez egitekoa baina handiaren handiaz hainbat mailukiri kentzen eutsan eguzkiaren argia.

Denporeak ez dau parkatzen eta bai sagarrak, madariak, okaranak, kereizak, mailukiak, e. a., batzuk hil eta beste batzuk jαιο.

Udea zelan joan, halan joiazan desagertzen eta eskasten urtearo horretako frutuak. Batzuk joanala etozan beste batzuk. Ez ziran bardinak. Batzuk oso desbardinak, beste batzun antzekoak.

Baina mailukiak, benetako mailukiak, mailuki izaten jarraitu eben Euren izenaz jarraitzen eben. Beti gogoratzten eben zaharrak esandakoa. Beti euren mailuki-legeak noiz birreskuratuko eta hatan ahalegintzen ziran. Azkenengoz galduko ebena galtzekotan, euren gaineko gorri, azpiko zuri ta hostoen orlegitasuna izango zan. Kolore honeek erakustearren sarritan izan ziran janak eta zulo-tuak.

Bai batzuk eta beste batzuk, alkarrenganako grina txarraz jaiotzen ziran. Baina mailukiak euren ebena kendutako guztia.

Kofran madaria, heldu-heldu, zoli zoli eginda egoala eta halakoren baten kirtana apurtu eta jausi zala betiko esan dogu.

Poztasun handiz ospatu eben jazoera hau mailukiak. Sagar Gazaren agintzapidean txarragorik ez jaken etorriko.


Sagar Gaza agintzen hasi zanean, bere inguruko frutuei askatasuna eskeini eutsen. Bera izango zala agintaria baina eurak euretara konpontzeko esan eutsen. Frutu desbardin guztien artean, hauteskunde batzuk egiteko eta irabazle urten eianak, harexek aginduko ebalu inguru edo frutu guztien gaitetik.

Zelan edo halan atondu eben irabazleok izango zana eta frutu bakoitzak bere erara jokatzeko eskubide batzuk eukiko ebazala ere bai.

Udagoiena zan. Sasoi honetan ikoa besterik ez zan ikusten inguruetan, horregaitik urten eben irabazle. Mahatsa ere hainbat ikusten zan. Mesmeruak, mertxikak eta antzerakoak ziran han, hor, hemendik mailukien ingurua osotzen ebenak.

Agintaritza ikoen artean egoan. Oladof zan agintari nagusia. Nahiz eta beronek agindu, Mahatsalden, Mesmerualden eta Mertxikalden zelango edo halango askatasun bat sortu ete zan esan eikean. Honeek ere euren agintari txikia, esango geunke, eukiela. Ez dago esan beharrik Mailukialden ere baegoala. Zutenea zan berau.

Mailuki batzuk, askatasun antzerako hau onartuz, euren burruka sortu eta bide horretatik jarraitu eben. Beste batzuk, ostera, lehenago munarik muna ibili ziranak ez



JESSE-84

etozan bat. Zatitu ziran eta batzuk aurrera, beste batzuk ezkerretara eta beste batzuk, gitxiago ziran arren, ezkerretik ezkererago begiratzen eben. Mailukialde goratzea zan guzti honeen asmoa. Bakoitzak bere erara. Dana dala, ezer lortzeko dana zan beharrezkoa.

Oladof ikoa, biguna zan. Batzuetan berdiska, beste batzuetan baltziska eta beste batzuetan zuriska. Mamitsua baina barrutik hutsa.

Ikondoa, andana handia euki arren zur bigunekoa zan. Kanpotik tantakada eztitsua bota arren barrukaldeketik esne mingostsua dakarrena da. Hain mingostsua ze, Kofran madariaren lagunak beraganatu ebazan. Karakolak, bareak, mamarroak, satorrak eta antzerakoak.

Udagoieneko sikateaz, mailukiak errez ebilzan batera bestera, Mailukialdetik munaz bestaldera. Mailukialden bertan ere erreztasun handiagok alkartu eta bizitzen ziran. Baina bare ta karakolak ez eutsien parkatzen. Azpitikoak kalte handiak ekartsiezan. Sustraiak ebagiz mailukiak txortaka sikatzen ebazan.

Dana dala, honek ez ebazan bildurtzen gure mailukiok, mailuki burrukalariok. Indartsuagoak egiten zituala zirudian. Inoren menpean bizitzeko ez egozan prest eta hatan ebilzan. Beleak beti haitzera. Lortzen ebilzana sor eutsien gainera!

Madarien aurka jokatu baeben ez ziran laburrago geldituko honekaz. Inguruko txori, erle, euli, eltxo eta hai-zerrea alde eukiezan.

Epe laburrean, plasta-plasta jausten hasi ziran iko irribarretsu ta bigunok.

Mailukialde menperatzerik ez egoan. Lurralde hau onuratsua zan. Txandaz beroa, txandaz hezoa. Zer hoberik ugaritzeko!

Kofran madariaz ez ziran danak galdu ezta gitxiagorik ere. Baina Hak agindu eban legez Sagar Gazaren menpean egozan. Danak ez etozan bat. Mailukien joan-etorriak muna batetik bestera, okilen besadar zulotzeak, ikoak geroago ta helduago egiten joiazala eta eltxo, euli ta erleak jan behar ebezala, ta artegatzen hasi ziran.

Artegatu bakarrik ez. Mailukiak madarien aurka eroezan ekintzak behin betirako amaitu nahian, behinola Kofran madariak egin eban antzera, Teilalari madariak, hau beranduko madaria zan, txarriak, hiltzen dagozanean emoten dituan erara, azken ostikadak emon nahi ebazan. Egoera larria benetan. Iko larriei euren puntako tantakadatzogozoa, beaztuneko ur-berdea baino mingostsuago egin jaken.

Laster hasi ziran barri-emoileak batera eta bestera jazoera honen barri emon eta egoerea lasaitzen. Baekien Kofran madaria zelangoa zan eta ez eben nahi antzerako bat agintaritzat.

Inor ez eben nahi agintaritzat eta eurak ez ziran gauza agintzeko. Udagoiena aurrera joian eta banan banan plasta-plasta jausi ziran alkarren ondoan danak desagertu arte.

Guzti hau jazo arren ez zan falta nork agindu. Horretarako prest egozan inguruetakoak. Aldian aldiko, gaztainak hasi ziran agintzen. Urtaroa zelan aurrera halan etozan agintari barriok. Mailukiak ez ekien zer zan hori. Aintzi-

nako mendietako suak eta keak galdu ziranetik ez zan hitz hau lortu derriorez hartu baino.

Dana dala iko guztiak desagertu baino lehen bizkor etozan, orpoan orpoan, bentugorri gaztainak, goiztiarrak eurok.

Ikaragarria zan ha! Gaztainea besterik ez zan ikusten! Edonondik! Bateko hau egingo ebela, bestetik hori egingo ebela, inguruko urretx, intxaur, mahats, mesmeru, urtebete sagar eta antzeko guztiak atzipetu nahian eragoien euren erako Gizartekeria bat sortuaz.

Ikoen agintzapean, mailukiak euren koloreak agertu eta nahinondik erabiltzeko eskubidea lortu eben, bakoitz-tza bere hizkuntzaz ulertzen zan baina aspiko onurea kendu nahian beti eta, batez ere, munarik muna ebilzan mailukiak harrapatu nahian ebilzan. Gizartekeria hau sortu eben gaztainak munduko onenak ziralakotan egozan baina oinarri bako etxe bat besterik ez zan.

Urtaroa neguratzen eta argitasunik ez Mailukialden. Noizpehinka negu usaineko laino baltzpetan euri hotz, abazuza tantakadak eta edur mataza baneka bat ere jausten hasi zan. Eguraldi nahastetsuak sortu ziran. Batean, goizean euria, arratsaldean eguzkia. Bestean, goizean iparhaizea, arratsaldean hego-haizea. Eguraldi honeen eragitan, gelditzen ziran sagar banekok eta antzerakook jausten ziran inoren errukirik barik.

Mailukiak, zelan hurreratu ekaitza halan sartzan ebezan lurperago euren sustraiak, ganekaldean ezaugarririk itzi barik hurrengo udabarriaren zain.

Bentugorrien ostean, ziri luzedun Uleberak hasi ziran agintzen. Nori agintzen? Eurak euretara burrukatzen hasi ziran ez eukien inor inguruan eta.

Zemendiaren lehenengoetan gorengo mendiak edurrez bete ziran. Bentugorriak ete Uleberak alkarren atzean edurraren pisuaz lurreratu eta usteldu egin ziran.

Lopetxak eta Eleberak bakarrik agiri ziran lur gainean, ekaitz artean. Haizearen indarrak batera eta bestera erabilzan lurra joazo arte, gainekaldean bat bera ere itzi ez arte. Geratu ziran bakarrak bela ta mixarrak jan ebezan. Lurrekoak barriz, batzuk usteldu eta besteak basaurdentzat.

Ekaitza geroago ta gogorrago etorren. Mendi guztiak edurrez beta ziran. Zuhaitz guztiak haizeak bota ebazan. Lur gainean egozan landarak zurdeak erre zituan. Lur gainean egoan ezerk ez eukan berbitzeko itxaropenik. Mundua ilundu egin zan. Ixildu egin zan. Lur gainean ez egoan arnasarik. Mailukiak lotan jarraitzen eben lurraren epeltasunean, hezotasunean, bigarren lotaroan.